

Banaketa eta Komunikazio Kanalak “Stay Save”

Kanal bat da gure proiektua bezeroekin konektatzeko erabiltzen den ezaugarria edo elementua.

Hau da, bezeroekin komunikatzeko erabiliko ditugun elementu guztiak dira, gure produktua ezagutzera emateko, merkatuan banatzeko eta saltzea lortzeko.

Banaketa-kanala ere gure proiektuak bezeroarekin duen edozein harremana da.

Erosketa-prozesuan emaitzarik onenak lortzeko kanal egokienak hautatu behar ditugu.

Banaketa-kanalak negozioan betetzen duten funtzioaren arabera sailka daitezke.

Haien funtzioen arabera hiru kanal desberdin sailka ditzakegu:

-Komunikazioa, hau erabiltzen da sozietateari zure produktua erakusteko, gure produktuaren publizitatea egiteko iragarki bat egingo dugu sarean jartzeko, telebistan ateratzeko, irratian entzuteko, egunkarietan ateratzeko edo autobus geltokietan promozionatzeko.

-Banaketa, gure enpresan lan egiten duten langileek gure produktua ezagutzea eragiten dute, beste publizitate modu bat balitz bezala. Stay save android eta ios plataformentzako konpatibleak izango dira eta edozein mugikorrarentzako ere.

-Salmentak, kanal hauek erabiltzen dira guk egindako produktua ezagutzera emateko, guk stay save-ren demo bat jarriko dugu interneten erabiltzaileak produktuaren ideiak hartzeko eta haien kezak esateko.

Saltzen ari garen produktuarentzako ez da beharrezkoa web orrialde bat irekitzea baina bai sare sozialetan promozionatzea edo kontaktuko telefono bat jartzea, erabiltzaileek haien beharrak trasladatzeko.

Gure salmenta, salmenta zuzen bat izango da ez dugulako izango langileak erdian, gu eta erabiltzaileen artean, guk igoko dugulako zuzenean sarera .

-Ebaluazio-fasea

Erosleak arretaz aztertzen du bildu duen informazioa, eta eskaintzen dizkioten etekinen eta eskura duen aurrekontuaren arabera dituen aukerak aztertzen ditu. Adibidez gure aplikazioarako pentsatu genuen funtzio sozial bat betetzen zuela eta estatuak kapital kantitate altua utziko zigula. Alde horretatik ez dugu bilatu beste erakunderik dirua uzteko.

-Erosketa fasea

Erosleak produktua edo zerbitzua erosteko erabakia hartzen du, eta salmenta-guneak kokatzen ditu.

Oso garrantzitsua da bezeroari jarduera hori erraztea, informazio garrantzitsua ematea, non eta nola erosi jakiteko. Stay save aplikazioa apple-en eta android-en jaitsi ahal izango dute eta haren prezioa 0€-koa izango da, hau da, doainikoa.

-Entregatzeko fasea

erosleak produktua edo zerbitzua jasotzen du.

Orain, gure produktua entregatzeko modurik onena zein den pentsatu behar dugu. Gure zerbitzua momentukoa izango da, mugikorreko datuekin edo Wi-Fi-rekin aplikazio hau eskuratu dezakezu edozein plataforman.

-Saldu ondoko fasea

Bezeroak arreta pertsonalizatua lortzen du, jaso ondoren erositako produktuarentzako arazoak konpontzeko edo zalantzak argitzeko. Zerbitzu hau emateko web orrialde bat ireki dugu eta adinako jendearentzako ez badakite web orrialdean sartzen kontaktatzeko telefono bat eskura izango dute egunaren 24 orduetan langile desberdinekin. Erabiltzaileak eskaerak egin nahi badituzte honako email batera bidali ahal izango dituzte (Staysave2020@gmail.com)

